

HAUSNARKETA JARDUNALDIA PARTE HARTZEA ETA ARTEA Argazki bidezko esperientziak

Data: 2015eko azaroak 4

Tokia: Rekalde aretoa, Rekalde zumarkalea. Rekalde zumarkalea, 30, 48009 Bilbo

Ordutegia: 9:30h-14 h.


Antolatzailea: Ignacio Ellacuria Gizarte Fundazioa.



Laguntzailea: Bilboko Udala



Erakunde laguntzaileak: Munduko Medikiak, Giza Eskubideen Institutua (Deustu) eta Rekalde aretoa.



PARTE HARTZEA ETA ARTEA

Argazki bidezko esperientziak

Parte hartzea eta artea Jardunaldia Ellacuria Fundazioak antolatu du Munduko Medikuek elkartearen, Deustuko Giza Eskubideen Institutuaren eta Rekalde aretoaren laguntzarekin. Jardunaldi honen bidez topaketarako eta hausnarketarako espazio bat sortu nahi da parte hartzeko tresna legez argazkigintzak duen gaitasunaz.

Aipatutako erakundeek *Con la Cámara a Cuestas* izeneko proiektu bat egin zuten 2014an eta hori izan da proposamen honen oinarria. Orduz geroztik 14 herrialde baino gehiagotako emakumeek hartu dute parte hausnarketa/ekintza prozesu batean, eguneroko bizitzari eta ekindako gaitasun-prozesuei buruzko esperientziak eta argazki-begiradak kontrastatzeko asmoz. Pentsatu eta argazkiak egin, partekatu eta komentatu; horri guztiari esker, esperientziak trukatu dira eta bizi-prozesuez hausnartu da. Gainera, argazkiak presentzia eta protagonismo handiagoa hartu ditu gure proiekturako tokiko bizitzan.

Argazkigintza parte hartzeko tresna izan daiteke eta erabilera horren inguruko esperientziak eta hausnarketak trukatzeko oso baliagarria izango delakoan, jardunaldi hauek denbora eta espazio bat partekatu nahi dute esfera publikoko eragileekin eta gizarte erakundeekin, partekatzen dituzten alderdiak aztertzea ahal izateko. Bestalde, hausnarketa sustatu nahi da, David Viñualesek dinamizatutako argazkigintza parte hartzaileari buruzko lantegi baten bidez.

Helburuak:

1. Gizarte eraldaketa prozesuetan adierazpen artistikoak duen gaitasunaz hausnartu.
2. Parte hartze artistikoaren / argazki arloko parte hartzearen esperientziak ezagutu.
3. Erakundeek eta gizarte zibilak proiektu soziokulturalen garapenean duten artikulazioa aztertzea.
4. Harreman berriak ezartzeko eta elkarrekin ekintzak egiteko espazioak sortu.

Hauei zuzenduta: herritartasuna errazago eraikitzeko parte hartzeak eta arteak duten zereginaz interesatutako pertsonen eta erakundeen.

Izenematea: Tokia mugatua denez (44 lagun), aurrez izena eman beharra dago helbide elektroniko honetan: conlacamaraacuestas@gmail.com

PROGRAMA

9.30 h. Aurkezpena eta ongi etorria Edith Ulloak (Ellacuría Gizarte Fundazioa) eta Eztizen Esesumagak (Rekalde aretoa).

10h. *Con la Cámara a Cuestas: la importancia de la mirada*. Parte hartzeko eta argazkigintzako proiektua. Edith Ulloa.

10:45h. Argazkigintzako lantegi parte hartzailearen aurkezpena: *De manifiesto*. David Viñuales.




11:00 h. Atsedenaldea.

11:30 h. Parte hartze prozesuetako argazkigintzaz hausnarketak: Oihana Marco eta Olga Ruiz.

12:30h. Argazkigintzako lantegi parte hartzailea: *De manifiesto*. David Viñuales.

13:30h. Ondorioak eta agurra

PARTAIDEAK

 A photograph of David Viñuales, a man with glasses and a beard, wearing a black jacket. He is looking towards the camera. A young child is partially visible behind him, looking down.	<p>DAVID VIÑUALES www.davidvinales.org</p> <p>Hezkuntza artistikoan doktorea (ME), David Viñualesek zuzentzen du gaur egun Agustín Serrate Fundazioko arteterapia programa. Argazkilaria (Espainiako argazkilari profesionalen elkarteko kidea) eta arteterapeuta, argazkigintza terapeutikoan eta irudiaren psikologian espezialista (arteterapiako espainiar elkarte profesionaleko kidea), fototerapiak garatzen aitzindaria izan da nazio osoan. Errehabilitazio eta gaikuntza psikosozialeko proiektuak garatzen ditu eta 2009a geroztik arteterapiako taldeak zuzentzen ditu.</p>
 A close-up portrait of Oihana Marco, a woman with short, curly, reddish-brown hair. She is looking directly at the camera with a slight smile.	<p>OIHANA MARCO www.oihanamarco.com</p> <p>Oihana Marco (Zaragoza, 1977), Psikologian lizentziaduna da (UPV, 1995-2000) eta Antropologian egin du masterra (London 2005-06: Bere tesina Londreseko bigarren belaunaldiko emakumeak eta beloaren inguruan egin zuen eta Bartzelonako MEDeneta Madrilgo FIMAMen argitaratzen du. CSIC, UB eta EHU-UPVko Magisteritza eskolan ematen ditu hitzaldiak. 2007tik 2011ra genero, Islam eta immigrazioari buruzko proiektuetan ikertzaile moduan lan egiten du Bartzelona, Zaragoza eta Londresen.</p>
 A photograph of Olga Ruiz, a woman in a light-colored dress, standing in a room with a large window. She is out of focus, and the scene is brightly lit.	<p>OLGA RUIZ www.olgaruiz.es</p> <p>Argazkilaria eta artista bisuala. Argazkilari profesionala da eta lankidetzako praktiken arloan esku-hartze artistikoak egiten ditu elkarteetan eta komunitateetan. Argazkigintza eta ikus-entzunezko lengoia erabiltzen ditu, praktikaren bidez sormen artistikoa eta gizarte eraldaketa sustatzeko.</p> <p>Azkeneko lau urteetan Askabideko langileekin eta emakume erabiltzaileekin lanean aritu da. Ondoko emakumea, Historias de Mujeres, La Copla del Desamor eta Del Selfie al Autorretrato.</p> <p>Arte Ederretan lizentziaduna, 2003, UPV/EHU eta Central Saints Martinsen masterra, 2006. Azkeneko erakusketak: ASISA, Argazkigintzako Nazioarteko V Lehiaketa; Murtziako Unibertsitateko Argazkigintza Arte Plastikoak 13. sariketa; Arte plastikoak eta argazkigintza deialdia, Alacanteko Aldundia, 2013.</p> <p>http://www.zinemapop.org</p>



CON LA CÁMARA A CUESTAS

Cámara a Cuestas Bilbon jaio zen 2013ko abenduan, erakunde desberdinetako pertsonen interesaren ondorioz: gizarte-parte hartzeko aukerak eskaini, arte garaikidearen bidez. Orduz geroztik, 14 herrialde baino gehiagotako emakumeek lantegiak, esperientziak eta argazkiak partekatu ditugu. Gaur egun, hirugarren edizioaren zain gaude.